

ALKATEAREN DEKRETUA
2017/ 1877

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 8/2017 espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera aipatutako espedientea bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikulua 4. apartatuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	200.000,00	4.000,00	196.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	kreditu globala eta bestelako ustekabeak			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		200.000,00	4.000,00	196.000,00

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	50.700,00	4.000,00	54.700,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	kreditu globala eta bestelako ustekabeak			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		50.700,00	4.000,00	54.700,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2017ko urriaren 20an

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea



KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0700.210.01.153.20 2017	AZPIEGITUREN MANTENIMENDUA. BIDE PUBLIKOA	200.000,00	4.000,00	196.000,00
GUZTIRA		200.000,00	4.000,00	196.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1100.226.08.172.00 2017	INGURUMEN JARDUERAK. INGURUMENA	50.700,00	4.000,00	54.700,00
GUZTIRA		50.700,00	4.000,00	54.700,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Tolosa, 2017ko urriaren 20an

ALKATEA



ALKATEAREN DEKRETUA

2017/ 1881

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2017-KALD-000012-00 zenbakiduna.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako foru aruak 31. artikuluen 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	13.300,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.434,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		17.734,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	17.734,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		17.734,00



KREDITU ALDAKETAK

2017-KALD-000012-00
Kreditu gaikuntza

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2017ko urriaren 20an

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea



Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak agindutakoa betez, eta 1174/1987 Errege Dekretuak, irailaren 18koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 31.1 artikuluan ezartzen duenez, tributu izaerarik gabeko hainbat sarrerak, artikulua horren 2. apartatua adierazitakoak, aurrekontu kreditu berriak gaitu ditzake, edota hasieran onartutakoak handitu.

Era berean, artikulua berak, 6. apartatuaren bitartez, ezartzen du tributu izaerako sarrera berriak edota handiagoak ere aurrekontu kreditu berriak gaitu ditzaketela, baina gastuen partida zabalgarrietan eta kreditu globalean soilik.

Adierazitako artikulua 4. apartatua gaineratzen denez, pertsona natural edo juridikoen ekarpenak edota ekarpen konpromisoak (2.a apartatua), eta beste herri entitate batzuen aurrekontuetatik nahiz pertsona edota entitate pribatuetatik datozen sarrerak (2.e apartatua) hitzartutako proiektuak egiteko erabili beharko dira. Halaber, ondareko ondasunen salmentatik (2.b apartatua) eta maileguen itzulketa edo amortizazio aurreratutik (2.d apartatua) datozen sarrerak, beti ere kapital eragiketak (inbertsioak) finantzatzeko erabili beharko dira.

Nire ardurapean ditudan kontabilitate liburuek eta gai honi buruz ditudan gainerako agiriekin jasotzen duten informazioaren arabera, eta adierazitako araudia jarraituz, 17.734,00 euroko kreditu gaikuntza proposatzen dut, eta ondoko eranskinean jaso ditut horren finantzaketa eta gainerako xehetasunak.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, kreditu gaikuntzarako espedientea onartzeko eskumena Alkateari dagokio sarrera finalistekin finantzatzen denean, baita gaikuntzak kreditu zabalgarriak edota kreditu globala finantzatzen dituen ere. Gainerako kasuetan, berriz, onarpena Udalbatzari dagokio. Nolanahi ere, jendaurreko informazio, erreklamazio eta behin betiko argitalpen tramiteak ez dira beharrezkoak.

Tolosa, 2017ko urriaren 20an
Kontu-hartzailea

**ERANSKINA****2017ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena**

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 1400.226.06.231.60 2017	JARD.SOZIO-KULTURAK.BERDINTASUNA	13.300,00
1 0500.480.01.231.40 2017	FAMILIEI.GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK	4.434,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		17.734,00

2017ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 410.01 2017	EUSKO JAURLARITZAREN TRANSFEREN.ARRUNTAK	4.434,00
a	2 420.99 2017	DIPUTAZIOAREN BESTE TRASNFEREN.ARRUNTAK	13.300,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			17.734,00

KODEEN AZALPENA

- a) Pertsona natural edo juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak
- b) Ondare ondasunen besterentzeak
- c) Zerbitzuak ematea
- d) Maileguen itzulketa
- e) Bestelako ekarpenak
- f) Itxitako ekitaldietako ordainketen itzulketak
- g) Tributu izaerako sarrera handiagoak (soilik kreditu zabalgarrietarako edota kreditu globalerako)



ALKATEAREN DEKRETUA

2017/ 1883

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 13/2017 espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera aipatutako espedientea bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Beraz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	31.417,00
6	INBERTSIO ERREALAK	2.845,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		34.262,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	34.262,00
GUZTIRA		34.262,00



Bigarrenen.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2017ko urriaren 23an

Alkatea

Nire aurrean
Behin-behineko Idazkaria

Olatza Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea



KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.200.01.342.30 2017	LURREN ERRENDAMENDUAK. BERAZUBIKO ESTADIO	1.400,00	2.700,00	4.100,00
1 1100.226.03.430.20 2017	KOMUNIKAZIOA. ORIABURU	0,00	5.000,00	5.000,00
1 1100.226.06.431.10 2017	JARD.SOZIO KULTURALAK. FERIA ETA AZOKAK	92.600,00	3.912,00	96.512,00
1 1100.226.99.432.00 2017	HAINBAT GASTU. TURISMOA	13.000,00	1.845,00	14.845,00
1 0700.625.99.153.40 2017	EKIPAMENDUA. ZERBITZU OROKORRETAKEO LANTALDEA	53.100,00	2.245,00	55.345,00
1 0400.624.01.130.00 2017	UDALTAINGOAREN IBILGAILUAK	25.000,00	600,00	25.600,00
1 0800.201.01.338.00 2017	ERAIKINEN ALOKAIRUAK. JAIK	29.040,00	17.960,00	47.000,00
GUZTIRA		214.140,00	34.262,00	248.402,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2017	ALT XORTEKIKO GERAKINA	34.262,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			34.262,00



KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Tolosa, 2017ko urriaren 23an

Alkatea



Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak agindutakoa betez, eta 1174/1987 Errege Dekretuak, irailaren 18koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, Alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako Foru Arauaren 34.3. artikulua arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena berez Udalbatzari dagokio. Hala ere, artikulua berean aurreikusitako salbuespenaren arabera, kasu honetan espedientearen onarpena Alkateari dagokio, ekitaldiko kreditu gehigarrien zenbatekoak ez duelako gairatzen aurrekontuaren %5a, eta aurrekontuaren exekuziorako udal arauak hala jasotzen duelako.

2017		
AURREKONTUA		
24.848.975,00	5%	1.242.448,75

	ERABILITAKOA	ERABILGARRIA
2/2017	1.018.602,52	223.846,23
5/2017	100.263,26	123.582,97
7/2017	11.500,00	112.082,97
9/2017	44.609,79	67.473,18
13/2017	34.262,00	33.211,18



Gainera, espediente honi ez zaizkio aplikagarriak aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak, eta ez zaio espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Tolosa, 2017ko urriaren 20an
Kontu-hartzailea